

Eibarko Udalak Arte Eszenikoen inguruan tailerra antolatu du antzerki eta musikalaren mundu ikusgarrian murgiltzeko, haurren gaitasunak eta doaiak garatuz ondo pasatzen duten bitartean.

**Tramitatzailea:** Haurreria eta Gazteria.

**Hartzaileak:** LH 5. eta 6. mailakoentzat.

- **12€** (Eibarren erroldatuak).
- **28€** (Eibartik kanpokoak).

**Ikastaroaren ordainketa:** Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, errezihoa helbideratuta.

**Eskaera egiteko tokia:**

- **Elektronikoki**, udal webgunetik: [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)  
Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.
- **Presentzialki**, **PEGORA**, **Herritarren Zerbitzurako Bulegoa**.

**Nork emango du:** KAXA.

**Non:** PORTALEAN 3.solairuan.

**Datak:** Martxoak 7, 8 eta 14.

**Ordutegiak:** LH 5-6: 17:00etatik 19:00etara.

**Eskaera egiteko epea:** otsailaren 24tik martxoaren 3ra.

**Ikasle kopurua:** gutxienez 6 ikasle ikastaroa burutzeko eta gehienez 20 ikasle.

**Ikastaroaren hizkuntza:** euskaraz.

**Ekarri beharreko materiala:** zapatillak eta arropa erosoak.

## Helburuak:

- Arte Eszenikoa sustatzea.
- Haurren eskaerei erantzuna ematea.
- Lagun berriak egitea eta adin tarte bereko lotura egonkorrak sustatzea.
- Eibarko elkarteei laguntzea.
- Haurren aisialdian modu aktiboan gozatzeko aukerak zabaltzea.
- Neska-mutilen arteko aukera Berdintasuna sustatzea.

## Aurkeztu beharreko agiriak:

- **Ikastaroan/tailerrean izena emateko eskaera** behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/ikastaroak-lehiaketak-sariketak> eskuragarri).
- Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Matrikulazioa presentzialki egiten bada, nortasun agiri nazionala aurkeztu beharko da emandako datuak egiaztatzeko.

## Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), 2020ko **martxoaren 5ean**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **martxoaren 5ean 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egingo da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku batean sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat aterako da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), egongo da **martxoaren 5ean, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

**Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan**